

DESKRIBAPENA II

1. Irakurri, eta erantzun galderei.

Alkalde andrea:

Gutun honen bidez, gure ikastetxearen ondoan dagoen futbol zelaiko ateen egoera kaskarraren berri eman nahi dizugu. Beharbada ez zinen aspaldian bertatik igaroko, eta ez duzu jakingo zer hondatuta dauden.

Gu, egunero, jolas orduan futbolearen aritzen gara. Baina bertako ateen egoera benetan penagarria da: guztiz herdoilduta eta apurtuta daude, eta hasieran zuten kolore zuria goiko ertzetan baino ez da ikusten. Gainera, alde bateko atea asko mugitzen da, ez baitago lurrean ondo sartuta, eta, horretaz gain, ertz bat apurtuta dauka. Sareak ere guztiz zulatuta daude, eta baloiak errepidera ihes egiten digu beti. Beraz, ikus dezakezu nez, egoera nahiko arriskutsua da. Egunen batean, bertan etorri eta ikustea izango duzu onena, zu zeu ohartzeko egoera zer txarra den.

Gutun honen bidez, fútbol zelaiko ateen egoera lehenbailehen konpontzeko eskatu nahi dizugu, ezbehar larriagoren bat gertatu aurretik.

Besterik gabe, gure eskaera kontuan hartuko duzulakoan, gaur.

Goiko eskolako 6.mailako ikasleak

a Zeren deskribapena agertzen da gutunean?

b Erabili al dute izenondorik? Zein? Argi azaltzen al dute deskribatutako objektua nola dagoen?

c Nolako deskribapena iruditzen zaizu: eskasa, ona, azalekoa, zehatza...? Zergatik?

Orain, demagun fútbol zelaia konpondu dutela eta ikasleek eskerrak emareko idazten diotela aldateari. Futbol zelaiaren egoera berriz zein den azaldu behar diote. Osatu gutuna.

Lekuben,

Alkate andrea:

Gutun honen bidez, eskerrak eman nahi dizkizugu gure eskaerari jaramon egin zeniolako. Mila esker, bihotz-bihotzez, futbol zelaia konpontzeagatik. Zoragarri dago!

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Nolakoa da
futbol zelai
berria?
Nola dago?

Eskutitz honen bitartez, eskerrak eman nahi dizkizugu berriro ere.

Besterik gabe, jaso ezazu agur bero bat Goikolea eskolatik.

6.mailako ikasleak